

MINZU

Autonomiak Espainian eta Txinan

Modernizazio prozesuak Espainian eta Txinan bat egiten dute autonomien arazoa interes handiko elkargune bezala ikusterakoan. Espainian, 1978ko Konstituzioaren aurreikuspenari jarraiki, Autonomien Estatua osatu da, funtsezko esparru juridikoa eta politikoa finkatuz; beti ere, etengabe eguneratuz. Bere aldetik, Txinan, une honetan aurrera doaz lurralde autonomiak legez osatzeko prozesuan, ondorioz, maila desberdinetan beraien autonomia sistema korapilotsuaren indartze juridiko handiagoa ikusten da.

Bi kasuetan, konpartitutako kezka dago administrazio autonomikoak gai publikoen kudeaketan eta herritarren kezkei erantzuteko sorkuntzan eraginkortasun handiagoa bermatzea lortu nahi dutelako, legitimazio osoa duten botere publikoak osatuz.

Azken urteetan, interes hori gauzatu da, batez ere, Txinatik egin diren bisita akademiko desberdinetan. Bisita horietan Espainiako sistema autonomikoaren ulermena eta bitxikerien ezagutza hurbildu eta indartu egin da. Esperientzia eragingarria izan da programa hau martxan jartzeko ideia indartzerako orduan, jakinda interesa altua duela ez bakarrik akademikoki baita bertatik irakasgaiak ateratzeko inplementazio praktikorako; betiere, bi aldeetarako balorea badu.

PROGRAMA

Txinako Gizarte Zientzien Akademiako Etnologia eta Antropologia Institutuak eta Nazioarteko Anlisi eta Dokumentazioko Galiziako Institutuak bultzatutako ekimen bat bezala sortu da, nazionalitate gutxiengoen autogobernuaren esparruan eta instituzionalizazio autonomikoaren hobekuntza ahalbideratu ahal duen erabilera esparruetan elkar ezagutza sustatzeko helburuaz.

Programaren erronka eta perspektiba nagusiak

Erronka nagusiena nazionalitate gutxiengoen autogobernuaren jarduera eraginkorrerako baldintzak hobetzea da, sistema autonomikoaren kalitatea areagotuz, eraginkorra bihurtzeko tresnak, mekanismoak eta prozedurak hobetuz. Horrek instituzionaltasuna indartzen lagundu behar du, bai legezko formulazioan bai kudeaketa gaitasunean.

Minzu programak ezagutza, informazioa eta esperientzien trukaketan aurrera egitea onartu behar du, eta horren gaineko balorazioarekin jarduera eta ekintza espezifikoko programazio bat egin ahal izango da bi aldeen arteko interes eta lehentasunen arabera.

Zer da Minzu?

Esperientziak trukatzeko programa bat da instituzionalitate autonomikoa indartzeko eta zabaltzeko helburuaz.

Helburuak

- a) Esperientzia autonomikoaren elkar ezagutzan sakondu.
- b) Gobernu egokiaren alorrean esperientziak elkartrukatu.
- c) Autogobernuaren garrantzia dela eta, kudeaketa publikoaren hobekuntzarako mekanismo modura sentsibilizazio maila altuago lortzen lagundu.
- d) Autogobernua errazten laguntzeko ordena guztietan neurriak proposatu.

Bi dimentsio

Programa honek jarduera bi dimentsiotan kontenplutzen du, dimentsio akademikoan eta politikoan; batera garatuko diren dimentsioak bi sistemen identitatea eta izaera errespetatuz eta ikertuko diren arazoen zailtasuna onartuz, aldaketaren eta gizarte transformazioaren motorea izan dadin, hausnarketa eta proposamenak bultzatuz eragileentzako gida praktikoa modura balio dezan.

Lan ildoak:

1. Administrazio autonomikoak indartu, bakoitzaren instituzionalizazio prozesuak indartzuz.
2. Esperientziak trukatu: kudeaketa politiko-administratiboan, ekonomiko finantzarioan eta kulturean.
3. Gobernu autonomikoen kudeaketa demokratikoaren kalitatea hobetu.
4. Oinarrizko gizarte zerbitzuak estaltzeko eskumenak onartzeko prozesuak babestu.
5. Interesa duten aspektuen ezagutzan zehaztera bideraturako ikerketa bisitak eta beste ekintza batzuk sustatu.
6. Argitalpenak eta artikuluak egin legezko testuen itzulpena suspertuz, gai autonomikoen ikertzaile, kudeatzaile eta arduradunentzako erreferentzia izan daitezen.

Harremanetarako:

Espanian

Nazioarteko analisi eta dokumentaziorako Galiziako Institutua

xrios@igadi.org

Txinan

Gizarte Zientzien Akademiako Etnologia eta Antropologia Institutua
zhulun@cass.org.cn

Babesleak:

Vicepresidencia da Igualdade e do Benestar (Galiziako Xunta)
Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza

Laguntzaileak:

Institut d'Estudis Autonomics (Kataluniako Generalitatea)